

ONGI BIZITZEA DONOSTIAN

Gizarte eraldapenerako lan egiten duten kolektiboak

2024ko iraila

Ikerlaria:

Nahikari Santano Urkidi

Koordinazioa:

Lumaltik Herriak

Lankidetzak:



AURKIBIDEA

1.	SARRERA	3
2.	TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA	4
3.	HELBURUAK ETA HIPOTESIA	6
4.	METODOLOGIA	6
5.	EMAITZAK	9
5.1.	Kolektiboak	9
5.2.	Kolektibismoa Donostian	27
5.3.	Migrazioa	27
5.4.	Praktika onak	28
6.	ONDORIOAK	29
7.	BIBLIOGRAFIA	30

SARRERA

Lumaltik Herriak zapatista herrien borrokaren eta bereziki emakumeen autonomia lortzearen aldeko elkartasunetik sortutako ONGD bat da. 10 urteko ibilbidearekin, erakundea Euskal Herriko eta Mesoamerikako lurraldeetan ardaztu da. Bere lana tokiko gizarte-mugimendu feminista, ekologista, antimilitarista eta antirrazistekin elkarlanetik abiatzen da, baita lurraren eta lurraldearen aldeko defentsako kolektiboekin eta Abya Yalan indigenen komunitate erresistenteekin lankidetzetik ere.

#Defensoras izeneko Gizarte Transformaziorako Hezkuntza programaren esparruan, Lumaltik-ek lurraldea defendatzen duten emakumeek aurrera egin behar dioten egoerak aztertze eta kontzientzia hartze prozesuan laguntzea eta kolektiboen arteko aliantzak sortzea bultzatzen du, bizitzaren eredu bidezkoago bat eraikitze aliatibak lortzeko.

Latinoamerikako 'Ongi bizitzea' kontzeptua oinarritzat hartuta, ikerketa hau Lumaltik Herriak Donostia hiriko gizarte-mugimenduaren errealitatea ezagutzeko beharrezanetik sortzen da. 'Ongi bizitzea'-k gizakiaren eta naturaren arteko harreman armonikoan jarri ohi du enfasia, Latinoamerikako indigenen kosmologietatik sortzen da eta erakunde publikoetan hartzen du indarra, lehenik Ekuadorreko (2008) eta ondoren Boliviako (2009) konstituzioetan ezarri ondoren.

Erakundeak txertatzen diren testuinguruari buruzko hurbilpen labur baten ondoren, ikerketa hau Donostia hiriko gizarte transformazioan aktiboki lan egiten duten zortzi kolektiboen azterketan ardazten da. Eta sakoneko elkarriketetan jasotako informazioaren bidez, hiriko ongi bizitzean laguntzen duten praktika onen zerrenda bat emango dugu amaitzeko.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

Hemen aurkeztutako ikerketa testuinguru sozioekonomiko batean kokatzen da, non Kapitalismoak, Antropozenoak eta cisgenero sistema zapaltzaileak munduaren zati handi bat suntsitzen duten.

Kapitalismoaren jaiotza Erdi Aroan ematen den haustura bikoitz batean kokatzen du Silvia Federicik (2010): gizakia eta bere ingurunearen arteko banaketa, eta gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunaren indartzea. Lehenengo hau lurraren pribatizazioaren bidez gertatu zen, eta bigarrena, Sorginen Ehizari esker. Urruntze prozesu hau Europako Industria Iraultzan iritsi zen gorenera, non *natura* kontrolatu beharreko zerbait gisa ulertzen zen eta fabrika modelo bat ezarri zitzaion bai naturari baita kulturari ere (Shiva, 2003).

Amerikako Kolonizazio prozesua testuinguru honetan garatu zen ere. Inbasio honek 50 milioi pertsona ingururen erailketa ekarri zuen eta hain izan zen handia atmosferan gertatutako CO2 murrizketa, ezen hainbat ikerlarik Antropozeno izeneko aro geologiko berri baten hasiera kokatzen baitute kolonizazioan (Lewis eta Maslin, 2015). Aro geologiko berri bat izateaz gain, Kolonizazioak¹ mendebaldeko mundu-ikuskeraren nagusitzea ekarri zuen. Horrela, mundua bi zatitan banatu zen, Iparraldea (Mendebaldea) neutro eta unibertsala dena eta Hegoaldea, arautik kanpoa dagoena eta atzeratua, basatia edo tribala bezala jotzen dena.

Nego Bispo (2015) filosofo eta lidergo quilombolak azaltzen duen bezala, Ipar Globaleko boterea mantentzeko, botereak ezarritako arauaren aurka zihoazen mundu ikuskera guztiak suntsitu behar ziren. Horrela, munduko aniztasunaren suntsiketa hasi zen, pentsamendu-sistema eta ekologia gizatiar eta ez-gizatiarren sinplifikazioa helburu, kosmofobia (Bispo, 2015) moduko batean.

Benetan lazgarria dirudien testuinguru honetan, lurraren suntsipenean oinarritzen den sistema ekonomikoari erresistentzia egiten dieten hausnarketa eta ikuspegiak iristen zaizkigu Latinoamerikatik. Gizakia bere inguru natural eta sozialaren parte bezala ulertzen duen termino bat da 'Ongi Bizitzea' ('Sumak Kawsay' quechueraz). Eta azken urteetan Latinoamerikako zati haundi batean zabaldu da, egungo eredu garapenezaleari aurre egiten dion eredu bat bezala.

Horrela, Latinoamerikatik iristen diren epistemologietan oinarritzen gara, 'Ongi Bizitzea' lortzeko bidean Donostiako hiriaren eraldatzean lanean diharduten mugimendu sozialen esparrua aztertzeko.

¹ Kolonizazioa XV. eta XVI. mendeetan gertatutako garai historiko bat bezala ulertzen dugu, hainbat hamarkadatan luzatu zena, baina aldi berean, prozesu hori oraindik ere indarrean dagoela ulertzen dugu.

> Donostia

Garapenaren ideia guztiz errotua dago euskal gizartean, eta ondorioz baita Donostiako hirian ere. Hazkunde ekonomikoarekin lotuta, gizarte osasuntsu baterako aukera bakar gisa inposatzen da garapena (Stengers, 2009). Garapenaren ideia hain errotuta dago, non Klimaren Krisia diskurtsoa,ren baitan Nazio Batuen Erakundeak *Garapen Jasangarrirako Helburuak* sustatzen dituen krisi horri aurre egiteko.

Donostia hiria paradigma horretan murgilduta dago guztiz. Bereziki turistikotze masiboaren eta makroproiektu urbanistikoaren garapenarekin, asko dira herritarrak bizitzen ari diren arazoak: alokairu eta etxebizitza erostearen kostuaren igoera, ondare arkitektonikoaren suntsipena, biodibertsitatearen suntsiketa... (Donostia Defendatuz, 2024). Hirigintza neoliberal ereduaren aurkako manifestazioak ohikoak dira azken urteetan, eta testuinguru honetan egiten dute lan ikerketarako elkarriketatutako kolektiboek.

HELBURUAK ETA HIPOTESIA

Gizarte eta kultura mugimenduetan lanean diharduten Donostiako mugimenduek hiriko 'Ongi Bizitzea'-ren lorpenean laguntzen dutenaren hipotesian oinarritzen da ikerketa hau.

Eta bere helburu nagusien artean, Donostiako gizarte-mugimendua ezagutzea, kolektiboek dituzten arazo eta gatazka nagusiak ulertzea, egin dituzten praktika eraldatzaileak biltzea eta praktika horiek zabalduz kolektiboen arteko interrelazioa eta 'Ongi Bizitzearen' aldeko praktiken erreprodukzioa bultzatzea daude.

METODOLOGIA

Enuntziatio eremua

Ikerketa lana ez da proiektu sinple bat. Gure lanaren bidez, kolonialismoaren eta inperialismoaren kodeak arautzen ditugu, eta sortutako ezagutza haien menpe jartzen (Tuhiwai, 2017). Agerikoa ez den arau hau hausteko, ezagutza sortzeko modu berriak garatu behar ditugu, munduaren ikuspegi hegemonikotik urrun doazen ikerketak eginez.

Horregatik, ikerketa honi ikuspegi dekolonial eta feministatik heldu diot. Horretarako, lehenik eta behin, nire enuntziatio eremua argitu beharra dut, izan ere, horrek guztiz baldintzatzen baitu nire ikerketa. Eta nire subjektibitateak eta nire zeharkatzen nauten kategoriek lan guztia eragin dute. Emakume zuria, queer-a, cis-a, klase ertainekoa eta unibertsitate-tituluduna naiz, duela 33 urte Euskal Herriko herri txiki batean jaioa. Mendebaldeko gizarte batean hazi naiz, eta jaio naizen tokiarekin eta nire larruazalaren kolorearekin lotutako pribilegioak izan ditut. Hala ere, gaztaroan urte asko atzerrian igaro ditut, batez ere Latinoamerikan, orain idazten ari naizen tokian, eta horrek nire munduaren ikuspegian eragin handia izan du.

Garrantzitsua da azpimarratzea ikerketa hau Lumaltik Herriak GKEarekin batera sortu dela ere, zeinak indigenen komunitateen borroka laguntzeko esperientziarekin, bereziki zapatistak, Guatemala, Chiapas, Honduras eta El Salvadorreko lurraldearen emakume defendatzaileekin aliantzak egiteko egiten duten lan. Eta aldi berean, Lumaltik-en lana feminismo anitzen, arrazakeriaren aurkako borrokaren eta Abya Yalako jatorrizko herrien lur eta lurraldearen defentsaren ekarpenez elikatzen eta eraikitzen da, eta elkarlanean diharduten erresistentziazko erakundeekin batera euskal testuinguruan ezartzen saiatzen dira.

Bestalde, ikerketako ikuspegi dekolonial eta feministak nabarmen agertzen dira elkarriketatutako elkarteetan hautaketan eta haiekin landutako gaien artean. Batetik, arrazismoa, migrazioa eta feminismoarekin lotutako elkarteak elkarriketatzen dira, eta bestetik, emakume migratzaileen egoera eta haiek elkarteetan duten parte-hartzean sakontzen da.

Ikerketa prozesua

Ikerketa honen lehen fasea, Donostiako elkartearen azterketa, 2023ko abendutik 2024ko urtarrilera bitarte burutu zen. Bigarren fasea, elkarriketak, 2024ko urtariletik martxora egin zen.

Lehen fasean, Donostian dauden eta gaur egun aktibo dauden elkartearen azterketa bat egin zen, aurkitutako kolektiboak ikerketako helburuen arabera iragaziz. Ondoren, hautatutako elkarteekin lehen kontaktua egin zen. Eta lehen kontaktu honetan jasotako erantzunaren arabera, zortzi elkarte aukeratu ziren elkarriketatzeko.

Sakoneko elkarriketak

Ikerketa honetarako zortzi elkarriketa erdi-egituratu egin ziren, aurretik prestatutako galdetegi bat jarraituz. Elkarriketetan, elkartearen sortzeaz, haien jardura nagusiez, zaintza praktikez, zailtasunez eta praktika onez galdetu zitzairen. Zortzi elkarriketatik sei Donostian egin ziren, aurrez aurre, eta bi online, lau orduko aldea zela eta, ikerlaria Brasilera itzuli behar izan zen eta.

Elkarriketatuak ikerketan parte hartu duten zortzi elkarteetako koordinatzaile eta kideak izan ziren. Elkarte hauen artean Donostian eta Gipuzkoan arrazismoaren aurka borrokatzen dutenak (SOS Racismo Gipuzkoa), Euskal Herriko Unibertsitatean arrazismoaren salaketa egiten dutenak (A!esan), Donostiako eta inguruko espazio naturalak defendatzen dutenak (Haritzalde), emakumeek elkarrekin kantatzeko espazio seguru bat sortzen dutenak (Emak Kantua), kontsumo arduratsuekin lotutako hiriko elkarteak biltzen dituztenak (Saretuz), emakume migratzaile, arrazializatu eta 'autoktonoak' lotzen dituztenak (Garaipen), dibertsitateari eta feminismoari lotutako lanak egiten dituztenak (Sorginlore), eta gizarteko gaiekin lotutako ikus-entzunezko narrazioak hiriko auzoetara eramaten dituztenak (Zinemaldi Alternatiboa) daude.

Orokorrean, parte-hartzaileek 23 eta 55 urte bitarte dituzte, gizon edo emakume bezala identifikatzen dira, eta pertsona zuri eta arrazializatu cis-ak dira. Batzuek elkarriketan parte hartu zuten elkartearen egiten dute lan eta beste batzuk sektore publikoan zein pribatuan lan egiten dute, eta elkartearen parte hartzea denbora librean egiten duten ekarpen bat da.

Analisi enpirikoa eta bibliografikoa

Lan honen ikuspegia ez da marko teoriko handian zentratzen, baina elkarriketak eta elkarteak egungo testuinguruetan kokatzeko analisi bibliografiko sinple bat egin dut. Gainera, bildutako analisi enpirikoz gain, analisi bibliografikoak testuari zabalera eta sakontasun gehiago emateko balio du.

Zailtasunak

Ikerketaren zailtasun handiena elkarte batzuen parte hartzea lortzea izan zen. Kasu batzuetan, parte hartzeko proposamena egin zenetik onarpenaren arteko unean, zalantza asko izan zituzten. Beste batzuek, zalantzak adierazi ondoren, gure mezuak erantzuteari utzi zioten gero. Eta beste batzuek, parte hartzea onartu arren, ez zuten ikerketari eskaintzeko denborarik izan.

Zailtasun hauekin, garrantzitsua da kontuan hartzea elkarte gehienek parte-hartzaileen boluntario-lanarekin funtzionatzen dutela, eta elkarriketatutako pertsona gehienek adierazi zuten beraien elkartearen arazo nagusietako bat denbora falta dela. Beraz, ikerketarako honetarako elkarriketan eskaini duten denbora, beraien baliabide eskasetik atera zuten.

Ikuspegi etikoa

Bestalde, garrantzitsua da adieraztea ikerketa hau “Defensoras: alternatibak Ondo Bizitzetik lurraldearen defentsarako” proiektuaren baitan dagoela, zeina Donostiako Udalak finantzatzutako proiektu bat den.

EMAITZAK

Kolektiboak

Jarraian, elkarrizketen emaitzak aurkeztuko ditugu, garatu ziren ordena kronologikoa errespetatuz.

> SOS RACISMO GIPUZKOA

SOS Racismo Gipuzkoa giza eskubideen antolakunde bat da, duela 30 urte baino gehiago sortu zena Gipuzkoan. Lucrecia Pérez² emakume dominikar migrante eta etxeko langilea hil zutenez geroztik erantzun antirrazista handia izan zen Estatu espainolean eta hainbat SOS Racismo erakunde sortu ziren Estatu osoan. Gipuzkoakoa horietako bat izan zen.

Hasiera batean, boluntarioekin lan egiten zuten, baina konturatu ziren ez zela nahikoa, profesionalizatu beharra zegoela, egiten ari ziren lanari denbora eta ezagutza espezifikoko gehiago eskaini behar ziotelako. Gaur egun, migratzaileen aholkularitza eta informazio bulego bat dute Donostiako Intxaurren auzoan. Bertan, urtero mila pertsona ingururi ematen diete arreta, arrazismoaren salaketak, eskubideei buruzko gaikako kontsulta juridikoak, atzeritartasuna, diskriminazioa, etab. gairen inguruan. Donostian beste bulego bat ere badute, non antirrazismoaren borrokarekin, sentsibilizazioarekin, harrera eta inklusio proposamenekin, boluntariotzarekin, etab. lotutako 20 proiektu baino gehiago garatzen diren.

Donostian duten bulegoaz gain, egoitza bat dute Erreterian, non etxeko langileen prestakuntza eta aholkularitza zerbitzu bat eskaintzen duten, gehienak Latinoamerikako emakume migratzaileak direnak.

HELBURUAK

Elkartearen helburu nagusia migratzaileen eskubideen defentsa da. Arrazismoa, bai instituzionala bai soziala salatuz lan egiten dute, eta harrerarekin egiten dute elkarlana ere.

ANTOLAKUNTZA

SOS Gipuzkoa batzar orokor baten bidez antolatzen da, non sozioak eta boluntarioak dauden, eta talde koordinatzaile bat ere badute, urtero sei aldiz biltzen dena. Horrez gain, zuzendaritza batzorde bat dago, talde koordinatzaileak erabakitakoak praktikan jartzen dituenak. Guztira 18 langile kontratatu dituzte, eta 120 boluntario inguruko taldea dute. Horietatik 30-40 inguruk astero laguntzen diote antolakundeari.

² Lucrecia Pérez 1992ko azaroaren 13an Madril hil zuten, guardia zibila eta beste 3 menor batek, guztiak neonazismo talde bateko kideak. Haren hilketak gizarte zibilean izugarritzko dardara sortu zuen, eta lehen aldiz migratzaileen eskubideen aldeko aldarrikapenak egiten hasi ziren kalera irten ziren. Haren krimena Espainiako Estatuan izandako lehen arrazista hilketa bezala katalogatu zen.

Antolakuntza honako ekintza-eremutan banatzen da: Juridikoa, Mentoretzak, Sentsibilizazioa, Komunikazioa, Antizurrunak, Genero Batzordea, Informazio eta Salaketa Bulegoa eta Emakume Etxeko Langileak.

EKINTZAK

Antolakundearen lan nagusia arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokan oinarritzen da, sentsibilizazio eta salaketa proiektuen bidez. Donostiako informazio eta aholkularitza bulegoa nabarmendu behar da, non urtero 1.000 bisita baino gehiago jasotzen dituzten.

Horrez gain, garrantzitsuak dira oso da haien mentoretza sozialeko programak. Alde batetik, Urretxindorra mentoretzak unibertsitateko gazteak migrante nerabeekin lotzen ditu. Bestetik, Izan Harrera programa pertsona migranteekin, asiloa eskatzen dutenekin edo errefuxiatuekin eta boluntarioekin egiten da. Bi mentoretza hauetaz aparte, Pasaia udalerrian emakume migratzaileak eta 'autoktonoak' batzen zituen proiektu espezifiko bat izan zuten, bi urte iraun zuena, baina orain geldituta dago.

SOS Arrazismo Gipuzkoak prestakuntza, hitzaldi eta tailerrak eskaintzen ditu kultur aniztasunari eta antirrazismoari buruz ere. Duela gutxi 'Hezkuntzari bira, kanpora begira' izeneko ikerketa-ekintza parte-hartzailea burutu dute, ikasgelan tailer antiarrazistak ezartzeko. Errenterian Etxeko Langileen Taldeak *Insumisas* izeneko aldizkaria eta izen bereko podcast bat argitaratu dituzte.

ZAILTASUNAK

Helburuen lorpenean, bi oztopo handirekin aurkitu dira SOSen: migrazioa handitu ahala legeak gero eta zorrotzagoak bihurtu direla eta arrazismo soziala, agerikoa eta sotila. Antolakuntzarekin lotutako beste zailtasun bat, dirulaguntzez soilik bizitzea da, honek jarduteko murrizketa batzuk ezartzen dizkielako.

INDARGUNEAK

SOS Racismo Gipuzkoaren indarguneetako bat, aitortza sozial eta instituzional oso zabal bat izatea da, eta erakunde publikoekin harreman estuak izatea. Alde batetik, erakundeek SOS oso kontuan hartzen dute, baina aldi berean, ez dira inolako alderdi politikorekin lotzen. Horrela, beraien salaketa egiteko gaitasuna ez da inolaz ere oztopatzen.

Era berean, profesionalizatu behar izan den erakunde bat izateak sozialki konplexuak diren problematikei erantzuten lagundu dio, profesionalizatu gabe ezin izango zitekeena. Horrela, migratzaileen eskubideen defentsan egiten duten lanerako funtsezko tresna da Informazio eta Aholkularitza Bulegoa.

ERRONKAK

SOSen erronka handiena gizartean antidiskriminazioaren diskurtsoa txertatzea da. Hori lortzen ez badute, instituzioetan ere sartzeari zailagoa izango da. Halaber, gizartearen pultsuari eustea oso garrantzitsua dela iruditzen zaie, eta Euskal Herriko gizarteak duen errealitate berriaren ulermena lortzea beharrezkoa dela deritzote.

Gainera, migratzaileen eta arrazializatuen inguruan dauden aurreiritzien eta zurrumurruen aurka lan egitea erronka handitzat jotzen dute. Etorkizunari begira, SOSen erronka handienetako bat migratzaileak eskubide guztiak izanda bizi daitezala da, Gipuzkoako gizartearen parte sentitzeko aukera izanik.

IKASKUNTZAK

SOS Arrazismo Gipuzkoak jaso dituen ikaskuntzetako bat inorren bozeramaile ez izatea, eta gizartean ematen ari diren antirrazismo debate berriak entzutea izan da.

ONGI BIZITZEARI EKARPENAK

Carlosen arabera, antolakundearen fundatzaileetako bat, Donostian ongi bizitzeko SOS Racismo-ren ekarpena diskriminazioaren ondorioz gaizki bizi den jendea dagoela eta horren ondorioz ongizate orokorra lortzea ezinezko dela gogoraraztea da.

> ZINEMALDI ALTERNATIBOA

Zinemaldi Alternatiboa 2006. urtean sortu zen, Donostiako gazte mugimendua hiriko ereduari alternatibak bilatzen ari zela. Horrela, Donostiako Parte Zaharreko gazte asanbladako talde batek Donostia Zinemaldia – Festival de San Sebastián-ari alternatiba bat sortzea erabaki zuen, gizarteko gaiekin lotutako filmak eta dokumentalak proiektatuz. Hasieran jolas moduko bat bezala sortu zena, gaur egun urtez urte publiko handi bat bateratzen duen ekitaldi garrantzitsu bat bilakatu da. 2018. urtetik aurrera, Zinemaldi ofiziala SSIFF siglekin ezagutzen da, bere ingelesezko izenean oinarrituta: *San Sebastian Film Festival*. Erantzun gisa, Zinemaldi Alternatiboak ere siglak gehitu zituen bere izenean, kasu honetan *San Sebastián Insurrectionary Fandango Festibala* izendatuz bere burua.

Urte batzuetan geldirik egon ondoren, 2010. urtean Groseko Gaztetxean berpiztu zen eta hurrengo urteetan okupatutako gune eta etxeetan ospatu zen. Pandemia garaian online egiteko gai izan ziren eta 2021ean kalera salto egin zuten. Ordutik, Zinemaldi Alternatiboa Donostiako auzoetako plazetan proiektazioak egiten ditu.

HELBURUAK

Helburu nagusia da Donostian eta euskal gizartean uneoro gertatzen ari diren gaien, gatazken eta arazoen inguruko ugaritze bat eta gogoeta bat sortzea da. Alabaina, Zinemaldi Alternatiboak erresistentzia eta disidentzia desberdinen ahots izan nahi du, zinema, plazera eta aldarrikapena uztartuz. Horrela, pentsamendu kritikoa sustatu nahi dute zinemaren bidez, gizarteko gaiekin eta gatazka sozialekin lotutako lanak proiektatuz. Eta eztabaida eginez arazo komuentzako irtenbide kolektiboak irudikatzeko pentsamendua eta irudimena sortu nahi dute.

EKINTZAK

Donostiako Zinemaldiarekin (SSIFF) bat etorri, Zinemaldi Alternatiboak film eta dokumental sozialak proiektatzen ditu hiriko plazetan. Urtero gai ezberdinen inguruan lan egiten saiatzen dira, eta azken urteotan etxebizitzaren eta urbanismoaren arazoetan jarri dute arreta.

ANTOLAKUNTZA

Zinemaldi Alternatiboa osorik autogestionatua da. Bere sortzaileek egiten dute koordinazio lana, baina pixkanaka auzoetako kolektiboak dira proiektzioak antolatzen doazenak ere.

ZAILTASUNAK

Espazio publikoak erabiltzeko zailtasunak handitzen ari direla salatzen dute Zinemaldi Alternatibotik. Autogestionatutako espazioak ere gero eta gutxiago dira, eta horrek zailtasunak sortzen ditu proiektzioarako azpiegitura publiko eta komunitarioak erabiltzerako orduan.

INDARGUNEAK

Elkartean aipatzen duten indargune nagusia hiriak zinemarekiko duen zaletasuna da, eta proiektzioetan parte hartze handia izaten dela nabarmentzen dute. Nabarmentzekoa da ere oso sendotuta dagoen kolektibo bat dela, 15 urte baino gehiagoko ibilbidearekin.

ERRONKAK

Haien erronketako bat Zinemaldi Alternatiboa hiriaren agente eta kolektibo sozialentzat eta baita eta mugimendu zibil osoarentzat tresna baliagarri bihurtzea izango litzateke.

IKASKUNTZAK

Kolektiboaren koordinatzaileek euren militantzaren jarraipen natural gisa jotzen dute elkarteak. Eta batzuetan zailtasunak bizi arren, poztasun handia ematen die proiektua aurrera eramanez ahal izateak.

DONOSTIAKO ONGI BIZITZEARI EKARPENAK

Zinemaldi Alternatiboak zinema hiriko bazter guztietara iristea lortzen du, Zinemaldi ofiziala eta bestelako kultura adierazpen ofizial edo instituzionalek iristen ez diren lekuetara. Horretaz gain, Donostiako arazoaren inguruko gogoetarako espazio bat eskaintzen du eta Zinemaldi Alternatiboa dela eta, oso interesgarriak diren dinamikak eta harremanak sortu dira parte-hartzaileen artean, komunitate bat sortuz.

> SORGINLORE

Sorginlore 2018an jaio zen, mugimendu sozialen, garapenerako lankidetzaren, ekonomia solidarioaren eta gizarte hezkuntzaren arloetan esperientzia profesional eta pertsonal handia zuten hiru lagunek bat egitean. Emakumeen eskubideen aldeko mugimenduan, parte-hartzean eta kulturartekotasunean oinarritutako lan bat partekatzeko nahitik abiatuta, Sorginlore elkarteak sortu zuten, etengabeko ikaskuntza eta esplorazio batean, esperientzia kolektiboak eragiten dituen erronkei erantzuteko asmoz.

Auzokideak, herriak, enpresak eta gizarte-mugimenduak bidelagun izan nahi dituzte, eta bizitzaren eta elkartasunaren etika batetik, eta pertsonen aniztasunetik abiatuta, bizikidetzarako eta gobernantzarako imaginario eta praktika bidezkoak, jasangarriak eta beren errealitate eta testuinguruetara egokituak eraiki nahi dituzte.

HELBURUAK

Kultura parte-hartzaileak eta pedagogia feministak ikuspegi lokal-globalarekin bultzatzeko helburuarekin sortu zen elkarteak. Era berean, egitura eta errealitate desberdinetan oinarritzen diren desberdintasun eta bazterketak subertitzen dituen eraldaketa sozial batean laguntzeko sortu zen, betiere bizikidetzak feministak eta kulturartekoak sortuz, aniztasunaren alderditik abiatuta.

Horretarako, berdintasuna eta parte-hartzea sustatzen dituzten prozesuak martxan jartzen dituzte, gaitasun indibidualak eta kolektiboak indartuz, eta ohiturak, jarrerak, konpromisoak eta loturak sortuz, ikuspegi lokal eta globaletik iruditeria eta errealitate feministak eta kulturartekoak eraikitzeko.

EKINTZAK

Sorginlorearen lanaren zatirik handiena lankidetzatik eta kooperaziotik sortzen da. Hezkuntza-erakundeekin lan egin dute, batez ere Lanbide Heziketan, Gobernu Kanpoko Erakundeekin eta mugimendu eta erakunde sozial eta feministekin. Tokiko eremuan formakuntza, dinamizazioa eta akonpainamendu lanak egiten dituzte, Donostian presentzia handiagoarekin, baina baita ere Gipuzkoan ekintzak burutuz eta Euskal Herriko eta Latinoamerikako erakundeekin lankidetzan.

Haien lan-lerroak parte-hartzea eta berdintasuna dira. Lehenengoari dagokionez, parte-hartze komunitarioa lantzen ari dira, bereziki gizarte-bazterketa egoeran dagoen gazteriaren protagonismoari arreta jarritz. Prozesu honetatik hainbat emaitza sortu dira: bideoak, bizikidetzarako dekalogoak, gakoak dokumentua, emakumeen eta Peruko gazteen sareekin egindako truke-bidaia, bizikidetzak, arrazakeria eta generoari buruz gazteen ahotsak jasotzen dituzten podcastak, etab. Berdintasunari dagokionez, oso lan garrantzitsua egiten dute hezkidetzaren arloan, hezitzaileen prestakuntza, jakintzen trukea, tresna ludiko-pedagogikoak (adibidez, ihes-gela), eta Costa Rica-ko ekimenekin eraikitako parte-hartze prozesuak barne hartuz.

Bi lerro hauei lotuta, genero-berdintasunaren aldeko antolakuntza-aldaketarako parte-hartze diagnostikoak eta planak, ebaluazio jarraituak, berdintasun planak, sistematizazioak eta parte-hartze bidezko ikerketak, eta abar, egiten dituzte.

ANTOLAKETA

Hasierako urteetan taldea bi emakumek osatu badute ere, gaur egun lau pertsonakosatzen dute. Beraien filosofia talde txiki bat izaten jarraitzea da, eta, nolana ere, feminismoa taldearen kudeaketa internoan ere aplikatzea bermatzea.

ZAILTASUNAK

Sorginloren erronka nagusietako bat egonkortasun ekonomikoa lortzea da.

INDARGUNEAK

Haien lanaren profesionaltasuna, talde lana eta gizartearen agente ezberdinekin etengabeko elkarriketa izatea dira Sorginlorearen indargune nagusiak. Horri lotuta, funtsezkotzat jotzen dute irekitasuna, elkarriketarako eta ikasteko jarrera.

ERRONKAK

Munduaren inguruko berri ezkorrak eta narratiba globalaren kontrola gizartearen tonika nagusia diruditen testuinguru batean, itxaropena mantentzea eta modu proaktiboan eta interkooperazioan jardutea erronka gako bat dela uste dute Sorginloren. Horretarako, elkartean funtsezkotzat jotzen dute munduko toki desberdinetako erakunde eta kolektiboekin, baita bertako inguruan bizi diren jatorri eta jatorri atzerriarrekoko pertsonekin elkarlanean aritzea, narratiba eta egiteko modu anitzak mahai gainean jartzeko eta itxaropen hori biziberritzeko.

IKASKUNTZAK

Assumptarentzat, Sorginloreko sortzaileetako bat, begirada zabaltzea izan da bere lanetik atera duen ikaskuntza handienetako bat. Adibidez, Hego Amerikarekin izandako lankidetzaren ondorioz, itxaropenaren, elkartasunaren eta hezkuntzaren kontzeptua birplanteatu ahal izan du.

DONOSTIAKO ONGI BIZITZEARI EKARPENAK

Bizikidetzak, feminismoa eta kulturartekotasuna ulertu eta praktikan jartzeko prozesuak, lankidetzak, trukeak eta ekimenak sortzea, laguntzea eta bertan parte hartzea da elkarlearen ekarpen nagusia hiriko bizi onera.

> HARITZALDE

Haritzalde 1996. urtean sortu zen, Donostiako Cristina Enea parkean zuhaitzak mozteko iragarpen baten ondoren. Abisuari erantzunez, hainbat pertsona parkean elkartu ziren mozketak ekiditeko. Zuhaitzak salbatzea lortu zuten, eta ingurumenarekiko konpromisoa zuten pertsona talde bat sortu zen, Haritzalde bihurtu zena. Borroka horren ondoren beste asko etorri ziren, eta ordutik ez dira gelditu hiriko eta ingurunekeo naturaren aurkako proiektuei aurre egiten.

HELBURUAK

Elkartearen helburu nagusia naturaren garrantziaren inguruan kontzientzia sortzea da, ez bakarrik landa-eremuetan, baita hiri-eremuetan ere. Haritzalderentzat oso garrantzitsua da hirietako eta inguruko naturaguneak babestea.

EKINTZAK

Haiei ekintza ohikoenetako batzuk honako hauek dira: bertako zuhaitzen landaketak egitea, hegaztientzako habiak eraikitzea eta landa zein hiriko zuhaitzetan jartzea, eta espezie inbaditzaileen garbiketak egitea, ondoren beste espezie batzuk landatzeko. Azken urteotan, bertako zuhaitzen haziak biltzeko irteerak ere egiten ari dira, gero gorde eta landatzeko.

ANTOLAKETA

Haritzalden elkarte-egitura tradizional bat jarraitzen dute. Lehendakari bat, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta bokal bat dituzte. Guztira 6-7 pertsona dira, eta beti saiatzen dira lanak modu bidezko batean banatzen, nahiz eta aitortzen duten praktikan zaila dela hori lortzea.

ZAILTASUNAK

Elkartearen zailtasun handietako bat denbora falta da, eta, aldi berean, pertsona falta ere bai. Jendeari zail egiten zaio beraien jardueretarako denbora eskaintzea. Horri lotuta, antolaketaren erronka nagusia proiektuan laguntzeko eta haiekin lan egiteko pertsona gehiago erakartzea izango litzateke. Gutxi izanda egiten duten guztia aurrera ateratzea lortzen badute, gehiago izango balira, gehiago egin ahalko lukete.

INDARGUNEAK

Elkarteko partaide gutxiek egiten duten guztia aurrera ateratzea kolektiboaren indargune handia da. Horregatik, Haritzalde osatzen duten pertsonen indarra eta bultzada nabarmentzekoa da.

ERRONKAK

Elkarte gisa dituzten helburuak kontuan hartuta, Haritzalde Donostiako gerriko berde bat sortzeko erronka planteatzen du. Gerriko hau sortu, mantendu eta babestea. Eta gerriko berdeaz gain, gerriko urdina ere egongo litzateke, itsas eremua babestuz. Horrela, gerriko berde-urdin bat sortuko litzateke. Lan honetarako, Haritzalde uste du Donostiako udala ingurumenaren aldeko interesetara bideratzea garrantzitsua dela. Haien ustez, gaur egun Udala enpresa bat balitz bezala ari da hiria kudeatzen, beti etekin ekonomikoa lortu nahian.

IKASKUNTZAK

Jonerentzat, elkarteko lehendakariarentzat, Haritzalden izan duen ikaskuntza handienetako bat haziekin esperimentuak egitea izan da. Nola hazten diren, haziak nola sortzen diren eta bakoitza noiz jaso behar den ikustea.

Bestalde, aberasgarria izan da udaletxearekin nola elkar eragin eta eragina izan ikastea, eta beste kolektibo batzuekin sortu ahal izan dituen harremanen garrantzia nabarmentzen du.

DONOSTIAKO ONGI BIZITZEARI EKARPENAK

Ekarpenik garrantzitsuena donostiarren artean natura zer den ulertzen laguntzea litzateke. Gure mundua suntsitzen ari garen une historiko batean gaudenez, natura babestea ezinbestekoa da, gure etxea baita. Eta triste da jendeak gure habitat naturala, gure etxea, suntsitzen eta galtzen ari garela ohartzen ez dela ikustea.

> SARETUZ

Saretuz-en elkarteek elkarrekin gisa definitzen dute beraien burua. 2010. urtean hasi ziren eratzen, Donostian kontsumo kontziente eta arduratsua lantzen zuten hainbat elkarte zeuden momentu batean. Hasieran, Mugarik Gabe eta Emaús erakundeak elkartu ziren Saretuz sortzeko, eta gero beste batzuk joan ziren batzen, eta gaur egun zortzi erakunde dira guztira taldea koordinatzen dutenak.

Donostia hiriko diagnostiko bat eginez hasi zuten proiektua, jarraian bilera sorta bat antolatuz zuten eta 2012an, oso arrakastatsua suertatu zen topaketa publiko bat egiten zuten San Telmo Museoan. Topaketa horretatik, hirian kontsumo arduratsuen alternatibak mapatzea erabaki zuten, eta lortutako informazioarekin mapa bat sortu zuten, gaur egun webgunean publikoa dena.

HELBURUAK

Haien helburu nagusia Donostiako kontsumo arduratsuen kultura sustatzea da, eta aldi berean, kontsumo forma ezberdinen inguruan hausnarketa egitea: aisialdia, kultura, denbora eta zaintza.

EKINTZAK

Saretuz-en ekintza ezagunenetako bat webguneko mapa interaktiboa sortzea izan da. Mapa horrek kontsumo jasagarriarekin lotutako hiriko 110 elkarte biltzen ditu. Saltokiak, erakundeak eta zerbitzu hornitzaileak jasotzen dituzte bertan. Eta trukea, berdintasuna, software librea, berrerabilpena, merkataritza justua, ingurumenaren babesa, ekonomia solidarioa eta finantza etikoak bezalako irizpideak bete behar dituzte bertan sartzeko.

Mapaz gain, gainera, hiri mailako ekintza bat antolatzen dute urtero, pare bat esperientzia trukaketa egiten dituzte, eskoletan formakuntzak ematen dituzte, eta kontsumo arduratsuekin lotutako azoketan eta ekitaldietan parte hartzen dute.

Azken urteotan, esperientzia-trukeen arloan berrikuntzak egiten ari dira: hitzaldi, mahai-inguru eta aurkezpen modura egin izan dituzten trukeez gain, bertso saioak eta antzerki-foro moduko formatuak lantzen ari dira. Donostiako erdialdean merkataritza gune berri bat eraikitzearen aurka ere performance bat egin zuten: merkataritza gunea hilerri bihurtu zuten antzezlan baten bidez, eta ekintza horretarako Bizilagunekin plataformaren babesa izan zuten, turismoaren hazkundearen aurkako herritar plataformarena.

ANTOLAKETA

Saretuz-en antolaketa hamabostean behin egiten dituzten talde bileretan oinarritzen da. Bilera horietan, dinamizazioaz arduratzen den pertsonak sarearen behar nagusiak mahai gainean jartzen ditu, eta pixkanaka-pixkanaka, dituzten proiektuak aurrera eramaten dituzte. Pertsona bat kontratatuta dute ekintzak dinamizatzeko eta koordinatzeko, baina beti saiatzen dira erabakiak talde moduan hartzen.

ZAILTASUNAK

Saretuz-en aurkitzen duten zailtasun handienetako bat antolatzen dituzten hamabostean behingo bileretan parte-hartzea aldakorra izatea da, eta horrek, batzuetan, proiektuek arintasun handiagoz aurrera egitea eragozten du. Horri lotuta, talde motorraean eta sarearen dinamizazioan pertsonak sartzen eta irteten ari diren heinean, urteetan egindako lan guztiaren ikuspegi historikoa galtzen da. Aldi berean, diru-laguntza publikoen mendeotasunak etorkizuneko lan-ikuspegietan nolabaiteko ziurgabetasuna sortzen duela ere onartzen dute.

INDARGUNEAK

Haien indargune nabarmenen artean webguneko mapa izango litzateke, Donostiako biztanleek asko erabiltzen eta onartzen duen tresna baita. Gainera, talde antolatzaileak gauzak egiteko daukan prestutasuna ere azpimarratzen dute.

ERRONKAK

Erronkei begiratuta, elkarte gisa egonkortasun handiagoa izatea gustatuko litzaieke, hirian presentzia handiagoa izatea, komunikazio tresnak hobetzea eta mapako merkataritza guneak sarearen parte gehiago senti daitezen inplikatzeko.

IKASKUNTZAK

Saretuz-eko parte-hartzaileen ikaskuntza handiena taldean, sarean, lan egitearen garrantzia da. Parte-hartzaileen arabera, elkarrekin lan egitea askoz eraginkorragoa da. Pertsona talde bat elkartzeak eta merezi duten gauzak egiteak duen indarra.

Baina aldi berean, hirian egin nahi dituzten aldaketen inguruan anbizio gehiegi ez izaten ikasi dute ere, eta beraien baliabideen eta egoeraren kontzientzia hartzea eta errealista izatearen garrantzia.

DONOSTIAKO ONGI BIZITZEARI EKARPENAK

Saretuz-ek hiriri bizi ona eskaintzen dio kontsumoari lotutako desmaterializazioaren proposamenaren bidez. Desazkundearen proposamenaren bitartez, "Ongi Bizitze" europarraren alde lan egiten dute.

Aldi berean, Saretuz-ek kontsumismo gutxiagoko, komunitarioago eta kutsadura gutxiagoko hiri baten alde egiten du ekarpena, Donostiako biztanleei gai hauek eztabaidatu, hausnartu eta partekatzeko gune bat eskainiz.

> EMAK KANTUA

Emak Kantua Tabakaleran astero elkartzen diren emakume talde bat da, abesteko helburuarekin. Ingalaterrako hegoaldetik Donostiara iritsi berri zen emakume batek, sortu zuen taldea, bere herrialdean antzeko beste talde batzuetan izan zuen partaidetza eredutzat hartuta.

Gaur egun, Emak Kantua taldeko parte-hartzaileak Donostiatik ez ezik, Estatuko (Kanariak, Valladolid, Madril) eta munduko beste leku batzuetatik (Mexiko, Erresuma Batua, Irlanda, India, Italia, Austria, AEB, Honduras, Frantzia, Finlandia) datoz.

HELBURUAK

Taldea sortzeko helburu nagusia emakumeentzako espazio segurua sortzea izan zen, elkartzeko, abesteko eta sare berriak sortzeko. Halaber, emakumeen ahalduntzea musika bidez bultzatzea ere bada helburuetako bat, baita publikoki abesteko lotsa gainditzea eta abesti berri bat proposatu, azaldu eta irakasteko ekimena eta lidergoa hartzea ere.

JARDUERA

Emak Kantua-ren jarduera nagusia taldean abestea da. Taldearen antolaketa orokorra emakume batek lideratzen duen arren, helburu nagusia astero parte-hartzaileetako batek abesti bat proposatzea eta taldeari irakastea da. Sarritan proposatzen diren abestiak gehiengoak erabiltzen duen hizkuntzatik desberdinak dira, eta horrek abestia irakasteko prozesua zaildu dezake.

ANTOLAKETA

Gaur egun, kolektiboaren antolaketa sortzailearen lekukoa hartu duen emakume gazte batek zuzendua da, sortzailea atzerrira bizitzera joan baita. Antolatzailea abestien letrak inprimatzeaz arduratzen da, eta astero parte-hartzaileetako batek aurrez adostutako abesti bat erakusten dio gainerako taldeari. 50 parte-hartzaile baino gehiago dituen Whatsapp talde baten bidez, hurrengo astean abestuko diren abestiak jakinarazten dira. Parte-hartzea guztiz libre da eta ez du inolako konpromisorik eskatzen.

ZAILTASUNAK

Kolektiboaren zailtasun handiena abesteko nahikoa emakume biltzea da, eta parte-hartzaileek parte-hartze iraunkorra izatea. Bestalde, zaila izaten da jendea abesti berriak proposatzera eta irakastera animatzea.

INDARGUNEAK

Parte-hartzaileen iraupenari buruzko zailtasunak izan arren, aste guztietan entsegua egin da, eta inoiz ez da saiorik bertan behera utzi parte-hartzaileen faltagatik. Gainera, beti iristen da jende berria, eta, beraz, rotazio handia dago parte-hartzean. Hirira iritsi berriak diren emakumeentzako topagune gisa ere funtzionatzen du, eta lagun berriak egiteko aukerak sortzen dira.

ERRONKAK

Etorkizunera begira, publikoan abestea eta taldearen koordinazioan arituko den pertsona berria bilatzea daude erronken artean, egungo koordinatzailea beste hiri batera bizitzera joango baita.

IKASKUNTZAK

Parte-hartzaileek ikasitako gauza handienetako bat jendaurrean hitz egiteko gaitasuna izan da, bai taldea zuzentzean, bai abesti berri bat pausoz pauso irakastean. Zailtasun berezia duten hizkuntzetako abestiak irakastean ere (irländera, adibidez) trebatu dira.

Gainera, hainbat herrialdetako emakume talde batean egoteak aukera eman die munduko leku desberdinetako kulturak ezagutzeko, herrialde bakoitzeko abestien bitartez.

DONOSTIAKO ONGI BIZITZEARI EKARPENAK

Emak Kantuak hirirako egiten duen ekarpen nagusia emakumeentzako ahalduentze- eta babes gune bat sortzea da. Aldi berean, hirira iritsi berrientzako lurreratzeko espazio ere bihurtu da, topagune eta elkargune izanik.

> GARAIPEN

Garaipen jada existitzen zen baina jarduerarik gabe geratu zen emakumeen elkarte bat zen. 2000ko lehen hamarkadan berpiztu zen elkartea, El Salvadorretik etorritako bi emakumeren bultzadari esker, Ana Murcia eta Bea Zalacain. Beraien praktika feminista El Salvadorreko 'Las Dignas' kolektiboan garatu zuten, eta ezagutza horretatik Eskola Feminista bat jarri zuten martxan, taldeari kide gehiago gehitzen joan zirenak beste ekimen batzuen bidez ere.

Garaipen kolektibo feminista antirrazista bezala birfundatu zen, nahiz eta kolektibo feminista antirrazista eta antikapitalista izendapena kolektiboaren prozesu politikoaren ondorioz sortu zen. Kolektiboak bai prozesu migratorioak bizi izan zituzten emakume arrazializatuak, bai esperientzia hori ez zutenak ere barne hartzen zituen, horrela, ikuspegi horretatik Garaipen kolektibo mistoa izanik.

Garaipenek migratutako emakume talde ugari sustatu zituen, udalerrietako berdintasun sailetatik lagunduta, emakumeak beren migrazio prozesuetan lagunduz, taldearen babesaren eta hausnarketa feministaren bidez.

Donostia eta Errenteriako beste talde feministekin elkarlanean, Garaipenek ikuspegi feminista eta dekolonialarek aldeko apustua egin zuen, eta leku horretatik lotu zen beste talde feministekin ere. Beste aliantza batzuen artean, Medeak bollera erradikal taldearekin sortutako aliantza da aipagarria, feminismoaren subjektu politikoa zalantzan jartzen zuten proposamenak biltzen baitzituzten, zuriaren eta eurozentrismoaren ikuspuntutik eta sexualitatearen ikuspuntu esentzialetik (feminismo queer-posizioetatik), mugimendu transfeminista hasiberri bat bultzatuz.

Gaur egun Garaipen-ek kolektibo misto bat izaten jarraitzen du, hausnarketa internoan eta aliantzak sortzean oso zentratuta dagoena. Zentzu horretan, Garaipen osatzen duten kideek beste elkarte batzuetan parte hartzen dute, eta partehartze horiek eragin handia dute Garaipenen: emakumeen asanbladak, talde antirrazistak, feminismo beltza, koordinatzaile feministak...

HELBURUAK

Garaipenen helburu nagusietako bat hausnarketa eta artikulazio feminista sortzea da. Horretarako, taldean feminismo autonomorako hazia ereiteko asmoa dute, praktika politikoa txikitik eraikitze asmoz. Horrela, hausnarketak eta estrategiak partekatzen dituzte, bakoitzak bere testuingurura edo herrira egokitu ahal izateko.

Garaipen lantzen ari den hausnarketen artean, Euskal Herriko mugimendu feminista zer den eta militantziaren forma berriekin eta bertako ordezkartzearekin zer gertatzen ari den definitzea daude. Era berean, asko eztabaidatzen dute Euskal Herriko eta Donostiako praktika zuriaren inguruan eta hau nola irauli daitekeen.

EKINTZAK

Garaipenen azken urteetako ekintza nabarmenenak mugimendu feministarekin estuki lotuta egon dira. 2019an Euskal Herriko Jardunaldi Feministetan parte hartu zuten, "Gure kuleroak buzten dituzten praktika politikoak" izeneko tailer bat emanez eta "Deskolonizazioa eta despatriarkalizazioa feminista bastarden ikuspuntutik" izeneko ponentzia aurkeztuz, Dekolonialitateari buruzko mahai-inguruan.

Dekolonialitatearen inguruan erakunde publikoekin ere lan egin dute Garaipenen, Errenteriako udalaren kasuan bezala, non dekolonialitatea lantzeko solasaldiak sortu zituzten. Gainera, Zaintzak Erdigunean koordinatzaile feministarekin lotuta egon dira, zaintza eztabaida sozial eta politikoaren erdigunera ekartzeko moduak eztabaidatuz.

Beraien hurrengo helburua eztabaida espazioak sortzea da, adibidez, 2023ko azaroaren 30eko greba ez babestearen atzean hainbat emakume arrazializaturen eta emakumeen elkarleen arrazoiak aztertuz eta gertaera horren inguruko oinarritzeko hausnarketak eginez. Zergatik emakume batzuk eta/edo emakume arrazializatuen kolektibo batzuk ez zuten deialdi horretan parte hartu, eta zer egitura-elementu dauden gatazka horren atzean.

ANTOLAKETA

Garaipenen egiten duten politika bere parte-hartzaileen bulkaden arabera da. Normalean asteburuetan biltzen dira, parte-hartzaileen egoeraren arabera eta bakoitzaren ordutegiak eta erabilgarritasuna kontuan hartuta.

ZAILTASUNAK

Antolaketan aurkitzen dituzten oztopo nagusiak feminismo zuriaren aldaketarako erresistentzia eta bertan eragiteko zailtasuna dira. Migratutako emakumeek bestelako errealitateak eta beharrak ekartzen dituzte eta askotan feminismo zuriak ez du haiek feminismoari ekar diezaiaketen sakontasuna ulertzen. Diskurtsiboki bai, onartzen da, baina

praktikan ez da egokitzen. Azkenean, migratutako emakumeek egokitzeko lan hori egin behar dute.

INDARGUNEAK

Garaipenen oso argi dute boterea desartikulatzen duen tresna oso indartsua dagoela, "ertzetan" dauden emakumeek eraikia. Eta emakume horiek feminista arrazializatuak, migratuak eta heterodisidenteak dira.

ERRONKAK

Etorkizunerako erronketako bat zurtasunak emakume migratuen eta arrazializatuen jakinduria, esperientziak eta egiteko moduak zurtasunak nola gutxien duen kontutan hartzea izango litzateke. Adibidez, nola ezagutza intelektual idatziak ahozko ezagutza historikoa gutxien duen.

IKASKUNTZAK

Auroraren, Garaipenen parte hartzaileetako baten, ikaskuntza handiena bere pribilegioez ohartzea izan da. Ordurarte zuria zenik ez zela ohartu ikustea. Horrela, Garaipenen parte hartzea oso garrantzitsua izan da maila politikoan.

Horrez gainera, migratutako emakumeekin harremanetan jartzean, mundua ulertzeko modu asko bereganatu ditu, hala nola errituen garrantzia eta haiekin batera doazen elementu "magikoak" taldearekin bat egiteko modu gisa.

DONOSTIAKO ONGI BIZITZEARI EKARPENAK

Garaipenen praktika politiko bat sarean egiten dute eta ahizpatasuna erdigunean jarri. Horrela, ikuspegi militante eta subertsiboarekin lan egiten dute, beti praktika politiko feministarekin lotuta. Horregatik, hiriko Bizitza Onerako ekarpenik handiena ikuspegi desberdinen artean sareak eta zubiak sortzea izango litzateke.

> A!ESAN

A!Esan edo Antiarrazakeria! Esan, Fernanda sortzailearen unibertsitateko arrazakeria salatzeke premiatik sortu zen. Brasilen jaiotako emakume arrazializatua, bere eskola ibilbidea Bilbo hiriko periferiako aniztasun handiko eskoletan izan zen, batxilergora iritsi arte. Batxilergoan, baina, bera eta beste ikaskide bat gelako pertsona arrazializatu bakarria izatearen errealitatearekin egin zuen topo. Askok harritu zuten horrek, baina bere esperantzak unibertsitatean jarri zituen, guztiz ezberdina izango zenaren ustearekin.

2018an unibertsitatean hasi zenean, ordea, 100 ikaslelik 5 bakarrik ziren arrazializatuak edo migratuak. Lehen urtean unibertsitateko talde antirrazistak bilatzen hasi zen, baina ez zuen halakorik aurkitu. Hori dela eta, bere bigarren urtean, 2019an, A!Esan sortzea erabaki zuen klaseko beste kide batzuekin batera.

HELBURUAK

A!Esan-en helburuak unibertsitateko edozein diskriminazio etniko eta arrazistaren aurka borrokatzea, instituzio-unibertsitatearen esparruan ematen diren arrazakeriaren era ezberdinak ikusaraztea, unibertsitateko kontestuan existitzen diren arrazakeria, xenofobiarekin, kolonialismoarekin, lgtbifobiarekin eta matxismoarekin lotutako ideiak eta adierazpenak erazte eta arrazakeriaren aurkako borrokan parte hartzen duten beste erakundeekin eta elkarteekin, publiko zein pribatu, lankidetzan aritzea dira.

EKINTZAK

A!Esan sare sozialetan presentzia handia duen elkarte da. 1.000 jarraitzaile baino gehiago dituzte beraien Instagram kontuan, eta antirrazakeriaren pedagogia egiteko erabiltzen dituzte sareak. Haien material pedagogikoan arrazakeriaren aurkako dekalogoak aurki daitezke, egunerokoan antirrazakeria sustatzeko aholkuak emanez, eta baita antiarrazakeriaren glosarioa, antiarrazakerian ezagutza gutxi duten pertsonentzako zailak izan ditzaketen terminoak azaltzen dituenak. Era berean, pertsonen arrazakeriaren maila neurtzeko tresna bat sortu dute, “Racistometroa” izenekoa.

Online egiten duten lan pedagogikoaz gain, hitzaldiak ere eman dituzte ikastetxeetan eta unibertsitatean bertan, espazioa uzten dieten irakasle aliatuekin batera. Hala ere, A!Esan-ek nabarmendu nahi du burutu dituzten ekintza gehienak unibertsitatetik kanpo izan direla, ez baitute unibertsitatearen laguntzarik jasotzen.

2022ko irailean antiarrazakeriari buruzko inkesta bat sortu zuten eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU-UPV) ikasleekin partekatu zuten. Lortutako erantzunen gehiengoa (%92) iruzkin arrazistak izan ziren, kolektiboa izatearen beharra argi utziz.

ANTOLAKETA

Gaur egun, sei pertsona daude kolektiboan inplikaturik. Hala ere, partaideen erantzukizun akademikoaren ondorioz, jarduerarik gabe daude aspaldi. Fernandak, sortzaileak, geldialdi honen inguruan hausnarketa interesgarria egiten du: “lanean aritu beharrik ez duten edo lehengusua den edo nebaren zaintzan eta 8.000 kezkekin ari behar ez duten ikasleak izango bagina, denbora eskaini ahal izango genioke, baina azkenean guk ez dugu pribilegio hori”.

ZAILTASUNAK

A!Esan-en zailtasun nagusiak migratzaile eta arrazializatutako pertsonen jasaten dituzten zailtasun estrukturalak dira. Bestalde, unibertsitateak sortutako oztopoak daude. Nahiz eta gizartean unibertsitateak ezagutzaren erakundearen irudia izan, elkarteko parte-hartzaileek uste dute unibertsitateak ezagutza mota bakarra sortzen duela: klasista, elitista eta arrazista. Hegoalde Globaleko ezagutzen errepresentazio falta handi batekin. Bai hitzaldiak, bai ikastaroak eskaini dizkiote unibertsitateari, eta inoiz ez dute erantzunik jaso.

Beste zailtasunetako bat taldearen barruan errelebo faltak eragiten du, lau urteko graduazioa amaitzean, gehienek kolektibotik kanpo jarraitzen baitute beraien bidea.

INDARGUNEAK

Taldeko kideen egiteko gogoia eta sormena indargune nagusietako bat izango litzateke, baita hainbat topaketa eta ekitalditan parte hartu ahal izana ere. Parte-hartzaileek balio handia

ematen diote sortutako taldea militantziaren mugetatik haratago joan izanari, esperientziak partekatzeko, babestuta sentitzeko eta adiskidetasun berriak sortzeko espazio segurua bihurtuz.

ERRONKAK

A!Esan-en gustatuko litzaieke unibertsitatetik harago, gizartearen beste eremu batzuetara zabaltzea, Gipuzkoan arrazakeriaren aurkako eskola bat sortuz, adibidez.

IKASKUNTZAK

Bere militantzian egindako lanarekin, Fernandak ikasi du unibertsitatea arrazista dela, eta Donostiako hiria ere halakoa dela.

DONOSTIAKO BIZI ONA

A!Esan-ek biolentziarik gabeko eta pertsona guztiak bere parte sentitu ahal diren mundu bat sortzeko lan egiten du. Bertan bizi diren guztientzako ahalik eta errespetu handieneko toki bat izan dadila hiria.

Kolektibismoa Donostian

Kolektibismoa herritarren antolaketa-modu bat da, eta bere helburua lurralde jain batek aurre egin behar dien arazoei irtenbidea ematea da. Eskubide zibilen murrizketa, bizitzaren eta espazioaren merkantilizazioa eta baliabide naturalen politika esktraktibisten agertoki baten aurrean, kolektibismoa ezinbesteko tresna politiko bihurtu da.

Donostiari begira, kolektibismoak hirian daukan egoerak aldaketa handiak izan ditu azken urteetan. Elkarrizketatutako pertsonak adierazi dutenez, aldaketa horren arrazoi nagusietako bat herritarren zahartzearekin lotuta egongo litzateke, aldi berean bizitza-kostu altuaren ondorio dena. Horren ondorioz, gazteak hiriko espaziotik kanporatuak dira eta inguruko herrietara lekualdatzen dira.

Ikerketan parte hartu dutenek ere aldaketa bat nabaritu dute aktibismo formetan: mugimendu batean parte-hartze egonkor batetik, ekintza konkretuetan inplikatzera pasa da, borroka iraunkor bat txertatu gabe. Horixe gertatu da, adibidez, Gros auzoko Manteo Parkearen kasuan, non milaka herritarrek bat egin duten bertan Basque Culinary Center³ eraikitzearen aurka.

Aipagarria izan da, halaber, migratutako pertsonak migrazioa eta arraza gaiei zuzendutako kolektiboetan soilik parte hartzen dutela ikustea, baina beste gai batzuetan lan egiten duten kolektiboetan ez egotea. Honen inguruan galdetuta, erakunde gehienek talde anitzagoak izateko beharra adierazten dute, baina hori lortzeko zailtasun handiak dituztela diote.

Migrazioa

Kolektiboen barruan ere oraindik konpondu gabeko gatazka da migrazioa. Adibide erakusgarri bezala, ikerketako partaide batek esan zuen nola kolektiboaren hasieran elkarlanerako gonbidapen ugari jasotzen zituzten erakunde sindikalista, ikasle-talde eta beste hainbat taldeen batzarretan, baina beraiek ahotsa hartzen zutenetan, beraien arrazakeriaren aurkako proposamenak ez zituzten ongi jasotzen, ez baitziren lehentasun bezala jotzen.

Gaur egun, Donostian 300 pertsona baino gehiago, gehienak migratutako gazteak, kale gorrian bizi dira, eta beste hainbat emakume migratzaile hiriko etxeetan 'interna' bezala lanean ari dira. Bi egoera hauek hiriko migrazioaren alde ikusezina erakusten dute.

2022ko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %11,5ak, 250.000 pertsona inguru, jatorri atzerritarra dute. Horietatik erdia baino gehiago, %52, Latinoamerikatik dator eta laurden bat, %21,7, Afrikatik (Ikuspegi, 2022). Datu hauek, baina, ez digute erakusten zergatik izan diren pertsona hauek ozeano bat gurutzatzera behartuak. Europako eta Ipar Amerikako enpresen politika esktraktibistak dira Afrikako eta

³ Donostiako gastronomia eskolaren eraikin berria sortzeko proiektu bat da *Basque Culinary Center* eta Gros auzoko berdegune bakarlean eraikitzea aurreikusten dute.

Latinoamerikako lurrak eta itsasoak suntsitzen dituztena, bertako ekonomia eta biztanleak pobretuz.

Nahiz eta errealitate hori oso gutxi lantzen den euskal gizartean, elkarriketatutako kolektibo guztiek erakutsi dute interes handia migratutako eta arrazializatutako pertsonen parte-hartzea sustatzeko beraien kolektiboetan. Askotan euskara aipatzen da pertsona hauen integraziorako oztopo gisa, baina elkarriketatutako kolektiboek argi dute hori ez dela arazo nagusia; izan ere, migratutako pertsonak estatutik etorritako eta hemen hamarkadak daramatzaten pertsona askok baino interes handiagoa erakusten dute hizkuntzan.

Aktibismo-lanari dagokionez, politizatutako emakume migratuek feminismoaren barruan egiten duten lana azpimarratzen du elkarriketatutako kolektibo batek, hauen errealitateak elkarriketaren erdigunera ekarri. Era berean, migratzaileek mugimendu sozialetan parte hartzeko duten arazoetako bat, lan prekarioek eraginda, taldean biltzeko ordutegi libreak ez izatea da.

Praktika Onak

Hiriko errealitate soziala, mugimendu sozialen eta migrazioarekin lotutako gaietan ezkorra izan arren, ikerketa honetan ikusi dugu hainbat kolektibo ari direla hiria guztiontzat bizigarriago bihurtzeko lan egiten. Haien lanetan inspirazioa hartuta, Donostiako Ongi Bizitzearen aldeko praktika egoki batzuk bildu ditugu, beste kolektibo batzuen bidearentzat lagungarri izan daitezkeen ustearekin.

Alde batetik, hiriko arazo sozial eta hirigintza-arazoei buruzko kontzientzia sortzeko hainbat modu berritzaile aurkitu ditugu: ikusentzunezko narrazioak erabiltzea aire zabalean egiten diren proiektioen bidez eta hiriko erdigunean performance bat sortzea dira adibideetako batzuk.

Bestetik, narratibak kontrolatzea eta narratiba berriak sortzea funtsezko elementua da mundua ikusi eta ulertzeko moduak aldatzeko. Horretarako, elkarriketatutako kolektiboetako batzuek komunikabideak eta sare sozialak erabiltzen dituzte albiste positiboak sortzeko eta salaketa eta pedagogia antiarrazista lantzeko.

Gai zehatzagoak lantzeko, kolektiboek elkarriketa-mahaiak sortu dituzte; feminismo zuriaren eta emakume arrazializatu eta migratuen elkarteen arteko desadostasunak gainditzeko topaguneak bilatzeko, adibidez. Bestalde, nerabeekin gai zailak lantzeko, parte-hartze jarduerak sortu dituzte, hala nola ihes-gela edo podcast bat.

Kolektibo gehienetan behin eta berriz errepikatzen den praktika bat, eta haien lanaren arrakastarako guztiz beharrezkotzat jotzen dutena, beste kolektibo eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzea da. Denek bat egiten dute sarean eta lankidetzan egiten den lanak ahalbidetzen duela proiektuak aurrera eramatea eta helburuak lortzea.

Kolektibo batzuetan, gainera, jatorri desberdinetako pertsonen osatutako taldeak izanik, pertsona guztien inklusioa sustatzeko ahalegin handia egiten dela ikusi dugu; bakoitzak bere

herrialdeko abesti eta istorioak partekatzeko espazioa izanik. Aldi berean, rolak txandakatuz, parte-hartzaileak indibidualki eta talde mailan ere ahalduntzea lortu dute.

ONDORIOAK

Orain arte aztertutakoa kontuan hartuta, ondoriozta dezakegu Donostia hiri turistifikatu bat izan arren, eta enpresa eta politikariek etekin ekonomikoa soilik helburu izanda pertsonen eta haien ingurumenaren eskubideak urritu arren, hiria pribatizatzearen aurka eta guztion ongizatearen alde borrokatzen duen herritarren ahalegin handia dagoela.

Kapitalismo basatiaren testuinguru global batean kokatuta, elkarriketatutako kolektiboek gizarte mugimendua sistema ekonomikoaren hedapen garapenzalea geldiarazteko egiten ari den lanren inguruko ikuspegi orokor bat ematen digute.

Bira deskolonial interesgarri batean, Donostiako kolektibo askok Abya Yala edo Hego Amerikako borroka eta erresistentzia esperientzietatik edaten dutela ikusi dugu, eta ikaskuntza horiek beren prozesuak aberasteko erabiltzen dituztela.

Horrela, eta tokiko zein mundu mailako egoera ezkorra izanda ere, kolektibo hauek egiten duten lanak Donostiako Ongi Bizitzea lortzen laguntzen duela ikusten dugu.

BIBLIOGRAFIA

Bispo, A. (2015). Colonização, quilombos: Modos e significados. Brasília: INCT.

Donostia defendatuz. (2024). La coordinadora Donostia Defendatuz anuncia movilizaciones para denunciar la política urbanística del ayuntamiento de Donostia. 2024ko apirilaren 5ean kontsultatua:

<https://donostiadefendatuz.org/la-coordinadora-donostia-defendatuz-anuncia-movilizaciones-para-denunciar-la-politica-urbanistica-del-ayuntamiento-de-donostia/>

Eustat. (2024). Las inmigraciones crecieron más de un 50% en la C.A. de euskadi en 2022 y se acercaron a 60.000. 2024ko apirilaren 5ean kontsultatua:

https://www.eustat.eus/estad/id_51/ti_Estad%C3%ADstica%20de%20movimientos%20migratorios/ultima-nota-prensa.html

Federici, S. (2004). Caliban and the witch. Autonomedia.

Ikuspegi. (2024). Población de origen extranjero en la CAE Rescatado de

https://ikuspegi.eus/files/banco_datos/5_3.pdf

Lewis, S. L., & Maslin, M. A. (2015). Defining the anthropocene. Nature, 519 (7542), 171-180.

Ministerio de Educación de Ecuador. (2024). Qué es el buen vivir. 2024ko apirilaren 5ean kontsultatua: <https://educacion.gob.ec/que-es-el-buen-vivir/>

Shiva, V. (2003). Monoculturas da mente: Perspectivas da biodiversidade e da biotecnologia. São Paulo: Editora Gaia.

Stengers, I. (2009). Au temps des catastrophes: Résister à la barbarie qui vient. Paris: La Découverte.

Tuhiwai Smith, L. (2016). A descolonizar las metodologías. investigación y pueblos indígenas: A descolonizar las metodologías. investigación y pueblos indígenas LOM ediciones.

El colectivismo en Donostia

El colectivismo es una forma de organización ciudadana que busca trabajar y dar solución a las problemáticas que enfrenta un territorio concreto. Ante un escenario de disminución de derechos civiles, mercantilización de la vida y del espacio y políticas extractivistas de recursos naturales, el colectivismo se ha convertido en una herramienta política imprescindible.

Trayendo la mirada a Donostia, nos encontramos con que la situación que el colectivismo atraviesa en la ciudad ha cambiado mucho en los últimos años. De acuerdo con las personas entrevistadas, una de las principales razones para este cambio estaría ligada al envejecimiento de la ciudadanía, que a su vez es consecuencia directa del alto coste de la vivienda. Como resultado, los más jóvenes son expulsados de la ciudad y se desplazan a las poblaciones contiguas.

Las participantes de la investigación también han observado un cambio en el tipo de activismo que se hace. De una participación estable en un movimiento, ha pasado a ser un activismo de implicación con acciones concretas, sin establecerse en una lucha permanente. Es así como ha pasado por ejemplo con el caso del Parque de Manteo en el barrio de Gros, donde miles de ciudadanos se han unido para hacer frente a la construcción de un Basque Culinary Center⁴ allí.

Otro suceso que ha llamado la atención ha sido el hecho de haber encontrado personas migradas participando únicamente de los colectivos enfocados en la migración y en el tema racial. En los colectivos que trabajaban otras temáticas, no había participación de ellas. Al preguntar sobre el tema, la mayoría de las organizaciones expresan la necesidad de tener un grupo más diverso, pero encuentran muchas dificultades para ello.

La migración

Aquí es donde nos encontramos con que la migración es un conflicto no resuelto dentro de los mismos colectivos también. Como ejemplo ilustrativo, una de las participantes de la investigación comentaba que en sus inicios, el colectivo del que formaba parte recibía varios convites para colaborar en las asambleas de organizaciones sindicalistas, estudiantiles, etc. Pero a la hora de ellas tomar la voz, sus propuestas para trabajar el antirracismo no fueron nada bien recibidas, al considerarse que no eran prioritarias.

Actualmente en la ciudad de Donostia hay más de 300 personas, la mayoría chicos migrantes, en situación de calle y otras tantas mujeres migradas trabajando como internas

⁴ El *Basque Culinary Center* es un proyecto para la creación de un nuevo edificio de la escuela de gastronomía de Donostia-San Sebastián, que pretenden construirlo en la única zona verde del barrio de Gros.

en las casas de la ciudad. Son dos situaciones que muestran la cara invisible de la migración.

Según los datos del 2022, el 11,5% de la población de la CAV, unas 250.000 personas, es de origen extranjero. Entre ellas, más de la mitad, el 52%, provienen de Latinoamérica y casi un cuarto, el 21,7% de África (Ikuspegi, 2022). Lo que los datos no nos muestran es la razón por la que estas personas se ven obligadas a cruzar un mar, un océano y migrar. Son las políticas extractivistas de empresas europeas y norteamericanas las que destruyen las tierras y los mares de África y Latinoamérica empobreciendo así sus economías y sus habitantes.

Y aunque ésta es una realidad muy poco tratada en la sociedad vasca, todos los colectivos entrevistados han mostrado su interés en trabajar para promover la participación de personas migradas y racializadas en sus organizaciones. Muchas veces se menciona el euskera como una barrera para la integración de estas personas en la sociedad, pero los colectivos entrevistados tienen muy claro que ése no es el problema, ya que, según ellos, los migrantes de origen extranjero presentan mucho más interés hacia el idioma que los migrantes procedentes del estado que llevan décadas viviendo aquí y no hablan.

En cuanto a su labor activista, una de las colectivas resalta el trabajo que las mujeres migradas politizadas están realizando dentro del feminismo, trayendo sus realidades al centro de la conversación. Al mismo tiempo, uno de los problemas que las personas migradas enfrentan para poder participar de los movimientos sociales, es la falta de tiempo libre en los horarios donde se suelen reunir los colectivos, por causa de sus trabajos precarizados.

Buenas prácticas

A pesar de que la realidad social de la ciudad sea desfavorable en relación a los movimientos sociales y especialmente relacionado a la migración, en esta investigación hemos podido ver que existen varios colectivos trabajando para hacer de la ciudad un lugar habitable para todas y todos. Inspirados en su labor, hemos recopilado una serie de buenas prácticas que creemos que pueden servir de inspiración para el camino de otros colectivos hacia el Buen Vivir de Donostia.

Por un lado, hemos encontrado muchas formas innovadoras de crear conciencia sobre problemáticas tanto sociales como urbanísticas de la ciudad: el uso de narrativas audiovisuales con proyecciones a cielo abierto y la creación de una performance en medio de la ciudad, son ejemplo de ello.

Por otro lado, el trabajo de control y creación de nuevas narrativas es una clave importante a la hora de cambiar las formas de mirar y entender el mundo. Para ello, hemos visto cómo algunas de las colectivas entrevistadas usan los medios de comunicación y las redes sociales tanto para generar noticias en positivo como para hacer denuncia y pedagogía antirracista.

Para trabajar temas más específicos, las colectivas han creado mesas de diálogo para buscar puntos de encuentro para el conflicto que se da entre el feminismo blanco y asociaciones de mujeres racializadas y migradas, por ejemplo. Y a su vez, para poder abordar temas complicados con adolescentes, se han creado actividades participativas como una sala de escape o un podcast.

La práctica que se repite entre casi todas las organizaciones y que consideran totalmente imprescindible para el éxito de su trabajo, es la colaboración con otros colectivos e instituciones. Todas coinciden en que el trabajo colaborativo y en red es lo que hace que sus proyectos salgan adelante y consigan sus objetivos.

En algunas de las colectivas también hemos encontrado cómo siendo un grupo formado por personas de distintas procedencias, se trabajaba mucho para fomentar la inclusión de todas, teniendo cada una un espacio para compartir canciones e historias sobre su país. Y al mismo tiempo, promoviendo la rotación de roles, las participantes pudieron empoderarse a nivel individual y a nivel de grupo también.

CONCLUSIONES

Teniendo en cuenta todo lo analizado hasta el momento, podemos concluir que aunque Donostia sea una ciudad donde la turistificación y la búsqueda del lucro económico por parte de empresas y políticos hacen disminuir los derechos de las personas y de su entorno, existe un gran pulso ciudadano que lucha en contra de la privatización de la ciudad y a favor del bienestar de todas y todos.

Enmarcado en un contexto global del capitalismo más salvaje, los colectivos entrevistados nos dan una visión general sobre el trabajo que se está haciendo desde los movimientos sociales para frenar la expansión desarrollista del actual sistema económico.

En un interesante giro descolonial, encontramos que muchas de las colectivas de Donostia ya beben de las experiencias de lucha y resistencia de América Latina, también conocida como Abya Yala, y que usan estos aprendizajes para enriquecer sus procesos.

Así, y a pesar del panorama local y global desfavorable, vemos cómo el trabajo que realizan los colectivos ayuda para la consecución del Buen Vivir en Donostia.

BIBLIOGRAFÍA

Bispo, A. (2015). Colonização, quilombos: Modos e significados. Brasília: INCT.

Donostia defendatuz. (2024). La coordinadora Donostia Defendatuz anuncia movilizaciones para denunciar la política urbanística del ayuntamiento de Donostia. Rescatado de: <https://donostiadefendatuz.org/la-coordinadora-donostia-defendatuz-anuncia-movilizaciones-para-denunciar-la-politica-urbanistica-del-ayuntamiento-de-donostia/>

Eustat. (2024). Las inmigraciones crecieron más de un 50% en la C.A. de euskadi en 2022 y se acercaron a 60.000 Rescatado https://www.eustat.eus/estad/id_51/ti_Estad%C3%ADstica%20de%20movimientos%20migratorios/ultima-nota-prensa.html

Federici, S. (2004). Caliban and the witch. Autonomedia.

Ikuspegi. (2024). Población de origen extranjero en la CAE Rescatado de https://ikuspegi.eus/files/banco_datos/5_3.pdf

Lewis, S. L., & Maslin, M. A. (2015). Defining the anthropocene. Nature, 519 (7542), 171-180.

Ministerio de Educación de Ecuador. (2024). Qué es el buen vivir Rescatado de <https://educacion.gob.ec/que-es-el-buen-vivir/>

Shiva, V. (2003). Monoculturas da mente: Perspectivas da biodiversidade e da biotecnologia. São Paulo: Editora Gaia.

Stengers, I. (2009). Au temps des catastrophes: Résister à la barbarie qui vient. Paris: La Découverte.

Tuhiwai Smith, L. (2016). A descolonizar las metodologías. investigación y pueblos indígenas: A descolonizar las metodologías. investigación y pueblos indígenas LOM ediciones.